



T4. EKIMENERAKO ETA ESPIRITU EKINTZAILERAKO KONPETENTZIA

Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezzen.

Osagaiak

Honako osagai hauek ditu ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentziak:

- a) Ideiak edo proiektuak sortzea eta/edo nork bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- b) Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea.
- c) Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.